

MARRAZKETA ARTISTIKOA

Azterketak bi aukera ditu, **A** aukera eta **B** aukera. Ikasleak horietako bat aukeratu eta garatu beharko du.


Azterketak ordubeteko iraupena du.

A AUKERA

Vincent van Goghen marrazteko moduaren gako grafikoa erabiliz, marraztu hurrengo argazkiaren interpretazio bat, Din A4 paperean. Saiatu konposizioaren egitura eta proportzioak mantentzen. Halaber, tonu-balioak eta perspektiba atmosferikoaren itxura. Horretarako, erabili zure ustez komenigarriena den prozedura edo teknika: tinta, errotuladoreak, grafitozko arkatzak, etab.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Neurriak eta proportzioak egokitzea. 2,5 p.
- Tonu-balioak eta perspektiba atmosferikoaren errepresentazioa. 2,5 p.
- Proposatutako gako grafikoa menderatzea. 2,5 p.
- Aukeratutako teknikaren erabilera egokia eta menderatzea. 2,5 p.



B AUKERA

Lerro hauen azpiko koloretako argazkia, kopian ezazu zuri-beltzean, grafitozko arkatzak erabiliz, Din A4 paperean. Saiatu konposizioaren egitura eta proportzioak mantentzen. Baita ere tonu-balio eta bolumenaren errepresentazio egokia lantzen.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Neurriak eta proportzioak egokitzea. 3 p.
- Tonu-balioen eta bolumenaren errepresentazioa. 4 p.
- Teknikaren erabilera egokia eta menderatzea. 3 p.

